

**OTXANDIOKO UDAL OSOKO BILKURAK 2015EKO  
OTSAILAREN 5EAN OSPATUTAKO EZ OHIKO  
BATZARRAREN AKTA. –**

**ACTA DE LA SESIÓN EXTRA ORDINARIA  
CELEBRADA POR EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE  
OTXANDIO, EL 5 DE FEBRERO DE 2015.-**

**Batzarreratuak / Asistentes:**

**Alkate – Presidentea / Alcalde-Presidente:**

*D. Santiago Uribe Laka jauna.*

**Zinegotziak / Concejales:**

*D. Iñaki Urigoitia Bengoa jauna.*

*D. Pello Otxandiano Campo jauna.*

*Dña. Eider Ajuria Jausoro andrea.*

*Dña. Nekane Ortiz de Zarate Ajuriaguerra andrea.*

*Dña. Mónica Maldonado Lozano Andrea.*

*D. Kepa Gonzalez de Audicana Bengoetxea jauna.*

*Dña. María Begoña Lasuen Ruiz de Azua andrea.*

**Ez etortzea justifikatzen dute:**

*D. Javier Garate Galarza jauna.*

**Bitarteko Idazkaria / Secretario interino:**

*D. Enrike Alaña Kapanaga jauna*

---

Otxandioko Udaletxean, 2015eko  
urtarrilaren 16an, arratsaldeko 20'00etan  
eta aurretik egindako deialdia erantzunez,

En la Casa Consistorial de Otxandio,  
siendo las 20'00 horas del 5 de febrero  
de 2015 y previa convocatoria cursada

Udal Osoa biltzen da goian aipatutako partaideekin, ez ohiko bilera ospatzeko. Alkate – Presidenteak batzarra ospatzeko kuoruma badagoela azalduz, Batzarra hasitzat ematen du, gai zerrendan azaltzen diren puntuen azterketa eta ebazpenari hasiera emanez.

Alkate jaunak, eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3 artikulua ezarritakoan babestuz, eta gaiaren premiazkotasuna ikusirik, honako gai hau aztertzea proposatzen du, “Mate” operazioa dela eta mozioa, eta egoki diren ebazpenak hartzea.

Udalbatzak aho batez berresten du gaia eguneko gai ordenean sartzea.

**1.- 2.015 URTEKO EKITALDIARI  
DAGOKION UDAL  
AURREKONTUA ONARTZEA,  
BIDEZKO BALITZ.**

Alkate jaunak hitza hartu eta inbertsio nagusia Plaza Nagusia eraberritzera dela adierazten du.

Ogasun Batzordean aurrekontu proposamena ikusi ondoren, bertaratutakoek aho batez honako hau

al efecto, se reúne en Sesión Plenaria Extraordinaria el Ayuntamiento en Pleno, con la asistencia de los arriba señalados. El Alcalde – Presidente, considerando que existe quórum suficiente, declara abierta la sesión, dando paso al examen y deliberación de los diversos puntos señalados en el orden del día.

El Sr. Alcalde, en virtud y al amparo de lo establecido en el artículo 82.3 del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, plantea la necesidad, de incluir por razones de Urgencia un nuevo punto en el Orden del día, el relativo a una moción por la operación “Mate”, y adopción de acuerdos que correspondan.

La corporación por unanimidad ratifica su inclusión en el Orden del Día.

**1.- APROBACIÓN, SI PROCEDE  
DEL PRESUPUESTO  
MUNICIPAL  
CORRESPONDIENTE AL  
EJERCICIO 2.015.**

Toma la palabra el Sr. Alcalde y manifiesta la principal inversión prevista es la remodelación de Plaza Nagusia.

Vista la propuesta de presupuestos por la Comisión de Hacienda, por unanimidad de los presentes, se

ebazten dute:

**Lehena:** 2015 urterako Udal Aurrekontuaren lehenbiziko onarpena egitea, Aurrekontu horiek Udal Aurrekontuek, Otxandioko Egoitza Autonomiadun Erakundearenak eta Otxandio XXI, S.A renak osatuta.

Laburpena kapituluz kapitulu honakoa da:

acuerda:

**Primero:** Aprobar con carácter inicial el Presupuesto Municipal para el año 2015, integrado por el Presupuesto de la Corporación, el del Organismo Autónomo Otxandioko Egoitza y la sociedad pública, Otxandio XXI, S.A.

El resumen por capítulos es el siguiente:

**UDAL SEKTORE PUBLIKOAREN AURREKONTU BATERATUA.  
2015. EKITALDIA**

**PRESUPUESTO CONSOLIDADO DEL SECTOR PÚBLICO MUNICIPAL.  
EJERCICIO 2015**

**SARREREN AURREKONTUA/ ESTADO DE INGRESOS**

KA P. CA P.	IZENA DENOMINACIÓN	Udaletxea Ayuntamiento	OTXANDIO XXI	OTXANDIOKO EGOITZA	BATERATUA GUZTIRA TOTAL CONSOLIDADO
1	Zuzeneko zergak Impuestos directos	248.000'00 €			248.000'00 €
2	Zeharkako zergak Impuestos indirectos	44.000'00 €			44.000'00 €
3	Tasak eta bestelako diru-sarrerak Tasas y otros ingresos	238.228'43 €		404.193'60 €	642.422'03 €
4	Transferentzia arruntak Transferencias corrientes	979.825'00 €	41.000'00 €		1.020.825'00 €
5	Ondare sarrerak Ingresos patrimoniales	46.250'00 €			46.250'00 €
6	Inbertsio errealean inoreng. Enajenación inver.reales				
7	Kapital transferentziak Transferencias de capital	465.708'84 €			465.708'84€
8	Aktibo finantziarioak Activos financieros				
9	Pasibo finantzarioak Pasivos financieros				
		<b>2.022.012'27 €</b>	<b>41.000'00 €</b>	<b>404.193'60 €</b>	<b>2.467.205,87 €</b>

## GASTUEN AURREKONTUA/ ESTADO DE GASTOS

KAP CAP.	IZENA DENOMINACIÓN	Udaletxea Ayuntamiento	OTXANDIO XXI	OTXANDIOK O EGOITZA	BATERATUA GUTZTIRA TOTAL CONSOLIDADO
1	Pertsonal gastuak Gastos de personal	351.822'47 €			351.822,47 €
2	Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak Gastos en bienes corrientes y servicios	788.478'75 €	5.082'00 €	404.193'60 €	1.197.754,35 €
3	Finantza gastuak Gastos financieros	5.569'80 €	14.367'20 €		19.937,00 €
4	Transferentzia arruntak Transferencias corrientes	223.799'35 €			223.799,35 €
6	Inbertsio errealak Inversiones reales	639.909'23 €			639.909,23 €
8	Aktibo finantzarioak Variación activos financieros				
9	Pasibo finantzarioak Variación pasivos financieros	12.432'67 €	21.550'80 €		33.983,47 €
		<b>2.022.012'27 €</b>	<b>41.000'00 €</b>	<b>404.193'60 €</b>	<b>2.467.205,87 €</b>

**Bigarrena:** Udal Aurrekontu bateratua eta Langilegoaren jardutze errolda, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta ohiko lekuetan argitaratuko da interesdunek egoki deritzaten elegiteak aurkezterik izan dezaten hamabost eguneko epean.

Aipatutako epean elegiterik ez balego, onarpena behin betiko bilalkatuko da, Toki Ogasunak arautzen dituen abenduaren 28ko 39/88 zenbakidun Legearen 150. atalak arautzen duenaren arabera.

**Bigarrena:** El presupuesto unificado será publicado en el Boletín Oficial de Bizkaia, y en los lugares de costumbre, para que los interesados en el plazo de quince días puedan presentar las alegaciones que estimen pertinentes.

En el caso de que en el mencionado plazo no se presentaran alegaciones, de acuerdo con el artículo 150 de la Ley 39/88 reguladora de las Haciendas Locales, la aprobación será elevada a definitiva.

**2.- 2.015KO AURREKONTUA  
GAUZATZEKO UDAL ARAUEN  
ONARPENA, BIDEZKO BALITZ.**

2015 ekitaldirako aurrekontua gauzatzeko udal arauen proposamen dokumentua Ogasun Batzordean ikusi ondoren, bertaratutakoen aho batekoaz honako hau ebazten da:

**Lehena:** 2015ko Aurrekontua gauzatzeko ondoren aipatzen diren udal arauak onartzea:

**2015ko EKITALDIKO  
AURREKONTUA GAUZATZEKO  
UDAL ARAUA**

**1º OINARRIA.- EREMUA ETA  
INDARRALDIA**

Aurrekontua gauzatzeko udal arau honek Abenduaren 2ko 10/2003 Foru Araua, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa ezartzen duenarekin bat datoz. Aurrekontu orokorraren buruketarako oinarri arau honek 2015. urtealdian egongo dira indarrean, honen zati bereiztezinak izanen eta aurrekontuak dirauen bitartean edukiko dute indarra, baita luzapena izatekotan.

**2en OINARRIA.- AURREKONTUA**

Udal Erakundearen aurrekontuaren

**2.- APROBACIÓN SI PROCEDE  
DE LAS BASES DE EJECUCIÓN  
DEL PRESUPUESTO GENERAL  
PARA EL EJERCICIO 2.015.**

Vista la propuesta de bases para la ejecución del presupuesto 2015 por la Comisión de Hacienda, por unanimidad de los presentes se acuerda:

**Primero:** Aprobar las Bases de Ejecución del Presupuesto General de 2015, que a continuación se transcriben:

**BASES DE EJECUCIÓN DEL  
PRESUPUESTO GENERAL DE  
2015**

**BASE 1.- ÁMBITO Y VIGENCIA**

Las presentes bases para la ejecución del Presupuesto General que se regirá por la Norma Foral 10/2003, de 2 de Diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Bizkaia son de aplicación durante el ejercicio 2015 constituyendo parte inseparable del mismo, extendiéndose su vigencia a la del propio presupuesto y su plazo de prórroga si lo hubiere.

**BASE 2.- PRESUPUESTO.**

El Presupuesto propio de la

eraketa-zerrendaren zenbatekoa 2.022.012,27 € (Udaletxea) + 41.000'00 € (Otxandio XXI) + 404.193,60 € (Otxandioko Egoitza) da, eta sarrerak nahikoak dira gastu guzti hauei aurre egiteko.

### 3en OINARRIA.- AURREKONTUAREN EGITURA.

Uztailaren 29ko 96/2014 Foru-Dekretuak ezartzen dituen egitura ekonomikoaren sailketarako kodeak erabiliko dira.

### 4en OINARRIA.- AURREKONTUEN KREDITUAK

Sarrera-izendapenak, gutxi gorabehera, baliabideak ematen dituzte eta neurri gabe aitor daitezke.

Eraketa-izendapenak urtealdian sor daitezkeen beharren gorenko muga suposatzen dute, baina aurrekontuan agertzeak ez du ematen ez eskubiderik ezta inolako betebeharririk, aurre-ikuspenak baino ez izatearren.

Aurrekontu orokorrean sartutako gastu bakoitzeko diru izendapena bertan onartzen diren xedeak edo, bestela, prozedura legala jarraikiz egin diren aurrekontuaren aldaketan bidez onartu direnak, lortzea bideratuko da bakarrik. Bestalde eta arau bidez beste gauzarik ez bada esaten,

Entidad Municipal cuyo estado de ingresos asciende a 2.022.012,27 € (Ayuntamiento) + 41.000'00 € (Otxandio XXI) + 404.193,60 € (Otxandioko Egoitza), resultando que la totalidad de los ingresos cubre el importe de los gastos.

### BASE 3.- ESTRUCTURA PRESUPUESTARIA.

Se aplicarán los códigos de clasificación de estructura económica, previstos por el Decreto Foral 96/2014, de 29 de julio.

### BASE 4.- CRÉDITOS PRESUPUESTARIOS.

Las consignaciones de Ingresos representan el cálculo aproximado de los recursos y pueden reconocerse sin limitación alguna.

Las consignaciones de Gastos representan el límite máximo al que pueden ascender en el ejercicio las obligaciones y su inclusión no genera derecho ni obligación alguna por tratarse de una mera previsión.

Los créditos para gastos de cada uno de los presupuestos integrado en el General se destinarán exclusivamente a la finalidad específica para la que hayan sido autorizando en el mismo o al aprobar sus modificaciones mediante el procedimiento legalmente establecido, teniendo

mugatzezko izaera izango du.

#### 5en OINARRIA.- AURREKONTUKO DIRUIZENDAPEN SORPENA.

Zerga natura ez duten sarrerek aurrekontuko eraketa-zerrendan kredituak sortu ahal izango dituzte beren bizitzaren edozein momentutan, baita aurrekontua luzatu behar den kasuan ere.

.- Toki Erakundearen xedeak eta helburuak lortzeko gastuak ordaintzeko, gizabanako zein legezko nortasundunen diru-eraketak.

.- Hasierako aurre-ikuspenak, toki erakundearen ogasunen salmenta.

#### 6en OINARRIA.- DIRUIZENDAPEN GEHIKUNTZAK.

Espedientearen biderapena:

Diru izendapenen gehikuntzek hurrengo hauek edukiko dituen espediente baten bidez egingo dira eginkortasuna edukiko badute:

.- Diru izendapen gehikuntzak duten gastuekin bereziki lotuta dauden sarrera programa edo programetan sarrera-zerrendan hasiera batean aurreikusi ziren baino eskubide gehiago aitortu

carácter limitativo en el supuesto que reglamentariamente no se disponga de otra cosa.

#### BASE 5.- GENERACIÓN DE CRÉDITOS PRESUPUESTARIOS.

Podrán generar créditos en el Estado de Gastos del Presupuesto en cualquier momento de su gestión, inclusive en el ámbito del Presupuesto prorrogado, los ingresos de naturaleza no tributaria.

.- Aportaciones de personas físicas o jurídicas para financiar gastos comprendidos en los fines y objetivos de la Entidad Local.

.- Enajenación de Bienes de la Entidad Local una vez superadas las previsiones iniciales consignadas.

#### BASE 6.- AMPLIACIONES DE CRÉDITO.

Tramitación del expediente:

Las ampliaciones de crédito para su efectividad, requieren expediente en donde se haga constar:

.- Certificación del Interventor en donde se acredite que el concepto o conceptos de ingresos especialmente afectados a los gastos con los programas ampliables, se han reconocido en

direla esaten duen kontu hartzaileak emandako ziurtagiria.

.- Horretarako doazkion baliabideak ezin izango dira ordaingari-egiketa batetik etorri.

.- Kredituen gehikuntzak handituko dituzten zenbatekoak eta gastu-programak zehaztu.

.- Toki Erakundearen Lehendakariak onartu behar du espedientea, egiketa bere aurrekontuari badagokio edo, banakako erakunde burujabearen maila handien norbanakako bakarrezko-saila, halako erakundeen aurrekontuari buruzkoa denean. Lehendakariak egiten den lehenengo bilkuran emango dio horren berri udalbatzari.

7en OINARRIA.-  
AURREKONTUAREN  
DIRUIZENDAPENEN ALDAKETA.

1.- Toki Erakundearen aurrekontuko diruizendapenen gehiketa.

Hurrengo urtealdira arte utzi ezin den gasturen bat egin behar denean, diru-izendapena ez badago, nahikoa ez bada edo Udal aurrekontuan jarri dena ez bada gehikigarria, Alkateak dagokion espedienteak has daitezela aginduko du, mota bitakoak izan

firme mayores derechos sobre los previstos inicialmente en el presupuesto de ingresos.

.- Que los recursos afectados no procedan de operaciones de crédito.

.- La determinación de las cuantías y programas de gastos objeto de las ampliaciones de crédito.

.- Aprobación del expediente por el Presidente de la Corporación Local, si la operación se refiere a su propio presupuesto o por el Órgano individual de mayor jerarquía del Organismo Autónomo en los Presupuestos de esta clase de Corporaciones. El Presidente de la Corporación informará al Pleno en la primera sesión que celebre.

BASE 7.- MODIFICACIÓN DE LOS CRÉDITOS PRESUPUESTARIOS.

1º.- Incremento de créditos en el Presupuesto de la Entidad Local:

Cuando deba realizarse algún gasto que no pueda demorarse hasta el ejercicio siguiente y no exista crédito o sea insuficiente o no ampliable el consignado en el Presupuesto de la Corporación, se ordenará la incoación por el Alcalde de los oportunos



daitezkeelarik:

a) Gastuen orrietan, onetsita izan ziren bezala, dauden zenbateko osoari ez dagozkion aldarazpenak, Abenduko 10/2003 arauko 36. artikuluan araupetutako kreditu transferentzia eta aldaketen araubidearen arabekoak izango direnak.

b) Ukituriko orrietako zenbateko osoari dagozkion aldarazpenak; araubide hauek gordeko dituzte:

- 1.- Kredituak emateari buruzkoa.
- 2.- Kredituak eransteari buruzkoa
- 3.- Baliogabetzearen ziozko baxei buruzkoa.
- 4.- Kreditu gehigarriari buruzkoa.
- 5.- Itunei buruzkoa.

Espediente hauetarako dirua nondik atera eta espedientea zelan bideratu: Abenduaren 2ko 10/2003 Foru-Arauk ezartzen duenaren arabera.

#### AURREKONTUAREN ERAENTZA

8en OINARRIA.- ERABILKIZUN EZ DIRELA DIRU IZENDAPENAK

1º.- Zinegotziren batek aurrekontuko diru izendapen bat,

expedientes, que podrán ser de dos tipos:

a) Modificaciones que no afecten al importe total de dichos estados de gastos tal y como fueron aprobados y que se acomodarán al régimen de transferencias de créditos y al de variaciones reguladas en el artículo 36 de la Norma Foral 10/2003.

b) Modificaciones en la cuantía global de los estados afectados, que se sujetarán a los siguientes regímenes:

- 1.- De habilitación de créditos.
- 2.- De incorporación de créditos.
- 3.- De bajas por anulación.
- 4.- De créditos por anulación
- 5.- De convenios

Financiación y tramitación: será de aplicación lo establecido en la Norma Foral 10/2003 de 2 de Diciembre.

#### GESTIÓN PRESUPUESTARIA

BASE 8.- CRÉDITOS NO DISPONIBLES.

1º.- Cuando un Concejal considere necesario retener, total

berari badagokio agintetzea, eta horretan dagoen diru osoa edo zati bat eutsi behar dela ikusten badu, Alkateak ondo ikusita lortu beharko duen proposamen arrazoiduna egin beharko du.

2º.- Udal Osoari dagokio dizu izendapena baliakizuna ez duela eta baita baliakizuna izatera bueltatu duela aldarrikatzea.

3º.- Ezin izango da gastuak egiteko baimena eman erabilkizuna ez duen salduaren kontura, ezta diru-aldaketatik egiteko eta honen zenbatekoa ezin izango da hurrengo urtealdiko aurrekontuan sartu.

4º.- Dirulaguntzak, beste erakundeen diru-ekarketak edo ordaingarri egiketeen bidez guztiz edo zati batan ordaindu behar diren gastuak diru izendapen erabiltezinak bezala geratuko dira dirulaguntza edo ordaingarri-egiketa ematen duten erakundeekin hitzarmena izenpetu arte.

9en OINARRIA.- BEHARREN EZAGUPENA ETA KITAPENA (O URRATSA)

Gastua egiteko konpromezua hartu ondoren (Baimena emate eta erabilpena), betebeharraren ezagupena egitea, diruagiriaren zenbatekoa zen den kontutan harturik, organo bati edo besteari egokituko zaio, 16. oinarrian

o parcialmente, crédito de un programa presupuestario de cuya ejecución es responsable, formulará propuesta razonada que deberá ser conformada por el Alcalde.

2º.- La declaración de no disponibilidad de créditos, así como su reposición a disponible, corresponde al Pleno.

3º.- Con cargo al saldo declarado no disponible no podrán acordarse autorizaciones de gastos ni transferencias y su importe no podrá ser incorporado al Presupuesto del ejercicio siguiente.

4º.- Los gastos que hayan de financiarse total o parcialmente mediante subvenciones, aportaciones de otras instituciones u operaciones de crédito quedarán en situación de créditos no disponibles hasta que se formalice el compromiso por parte de las Entidades que conceden la subvención o el crédito.

BASE 9.- RECONOCIMIENTO Y LIQUIDACIÓN DE OBLIGACIONES: (FASE O).

El reconocimiento de las obligaciones, una vez adoptado legalmente el compromiso del gasto (Autorización y Disposición), corresponderá al órgano correspondiente dependiendo del montante de la factura según se

esaten den legez.

10en OINARRIA.-  
ORDAINKETARAKO AGINDUA (P  
URRATSA)

Aldez aurretik onartu diren  
betebeharrak ordaintzeko agindua  
ematea toki erakundearen  
lehendakariari edo berak  
eskuordetu dion zinegotziari  
egokituko zaie.

Ordaintzeko aginduek  
Lehendakariak ezartzen duen  
dirupoltsa erabiltzeko egitasmoari  
egokitu beharko dute, eta  
lehentasuna edukiko dute langileria  
gastuak eta aurreko urtealdietan  
hartutako betebeharrak.

11en OINARRIA.- ORDAINDU  
AURREKO ZIURTAPENA.

Ezin izango da ordaintzeko agindua  
eman ez bada aldez aurretik  
beharrak onartzeko gai den  
sailaren aurrean agiri-bidez  
egiaztatu zerbitzuan bete egin dela  
edo hartzekodunak eskubidea  
duela, hau dena, baimena,  
erabilpena eta ezagupenaren  
onarpena arautzen dituen arauak  
betez.

12en OINARRIA.- ORDAINKETA  
GUZTIENTZAKO BETEKIZUNA.

Diruzain-ordaintzaileak ordaindu  
behar diren pertsoneri eskatu ahal  
izango die nortzuk diren

detalla en la base 16.

BASE 10.- ORDENACIÓN DEL  
PAGO: (FASE P).

La ordenación de pagos de  
aquellas obligaciones previamente  
reconocidas, corresponderá al  
Presidente de esta Entidad Local o  
Concejal en quien delegue.

Las órdenes de pago deberán  
acomodarse al plan de disposición  
de fondos que se establezca por el  
Presidente, teniendo prioridad en  
todo caso los gastos de personal,  
y las obligaciones contraídas en  
ejercicios anteriores.

BASE 11.- JUSTIFICACIÓN PREVIA  
A TODO PAGO.

No podrán expedirse órdenes de  
pago sin que previamente se haya  
acreditado documentalmente ante  
el órgano competente para  
reconocer las obligaciones, la  
realización de la prestación o el  
derecho del acreedor y todo ello  
de conformidad con las  
resoluciones aprobatorias de la  
autorización, disposición y  
reconocimiento de la obligación.

BASE 12.- EXIGENCIA COMÚN A  
TODA CLASE DE PAGOS.

El Tesorero pagador podrá exigir  
la identificación de las personas a  
quienes paguen cuando para él

erakusteko, ezezagunak zaizkionean. Baldintza hau betetzen ez badu, ez da erantzunkizunik gabe geratuko.

Hil-ondare bat ordezkatzeko dutenek erakutsiko dute, dagozkion agiriekin, honen jabeen baimena nahikoarekin iharduten dutela.

Ezinduak eta adingabekoak izanez gero, horien legezko eskudunetik tratatuko dira.

13en OINARRIA.-  
DIRULAGUNTZAK ORDAINDU  
AURREKO BALDINTZAK.

Toki Erakunde honen edo bera Erakunde Burujabearen aurrekontuaren kontura eman daitezkeen dirulaguntzak ordaintzeko hartzaileek, zehaztapen-txosten baten bidez, erakutsi beharko dute Erakundearekin dauzkan zergak kitatuta dauzkala eta jaso duen dirua ondo erabili duela ordain-agiri originalak aurkeztuz, propioki dagokion araudian ezartzen den eran egingo delarik.

14en OINARRIA.- ZURIKATZEKO  
ORDAIN-AGINDUAK.

Diru-aurrerapenak eman daitezke kutxa finkoaren karguz zenbait

fuesen desconocidas. No quedará exento de responsabilidad directa y personal si se incumpliese dicho requisito.

Los que actúan como representantes de herencia acreditarán, con la documentación respectiva, que obran con suficiente autorización de los titulares de la misma.

Respecto a incapacitados y menores se entenderán con los representantes legales.

BASE 13.- EXIGENCIAS PREVIAS  
AL PAGO DE LAS SUBVENCIONES.

Las subvenciones que se concedan con cargo al Presupuesto de esta Entidad Local, o la de los Organismos Autónomos, requerirán para su pago que los preceptores acrediten previamente estar al corriente de sus obligaciones fiscales con la Entidad, así como que justifiquen la aplicación de los fondos recibidos, mediante presentación de una memoria explicativa y aportación de facturas originales, en los términos previstos en la normativa específica.

BASE 14.- ÓRDENES DE PAGO A  
JUSTIFICAR.

Se podrán conceder anticipos de caja fija para hacer frente a

gastu aurre egiteko, hots, bideraketa osoa amaitu arte ordaindu gabe itxaron ezin direnok, premiazkoak izateagatik.

a) Kutxa finkoaren diru-aurrerapenekin ordaindu ahal diren gastuak, beti Ogasun Batzordearen onarpenarekin baina, dira:

.- Ogasunak eta zerbitzuak erosteko gastu arrunta txikiak, berehala erabiltzeko eta esku-diruz ordaindu behar direnak, daukaten arrazoizko premiasuna dela bide ezin dutela baimena eta onespina lortu arte itxaron (postazko gastuak, inprimaki ofizialak, giltzen kopiak, fotokopiak, premiazko garraio-zerbitzuak, besteren artean).

b) Kutxa finko honen karguz egin daitezkeen ordainketak ez dira izango 800'00 €tako baino handiagoak.

#### 15en OINARRIA.- ORDAINKETEN EGIAZTAPENA.

Ordaintze-agindu bat onartzeko lehenengo ordain-agiria eskatuko da "jaso dut" barik baina hornitzailearen ikurra edo sinadurarekin. Diruzainak ordaintza-mamuan "jaso dut" eskatuko du eta herritik kanpo ordaintzen bada, etxe bakoitzak bidaltzen dizkioten "hartu izana adierazpen" agiriarekin.

determinados gastos, que por su carácter de urgencia no pueda esperarse a su tramitación para realizar el pago:

a) Los gastos que se podrán atender mediante anticipos de caja y con aprobación de la Comisión Informativa de Hacienda, serán los siguientes:

.- Pequeños gastos corrientes para adquisición de bienes o servicios, cuya disposición debe ser inmediata y de pago al contado, que por su "urgencia justificada" no se pueda esperar a la consiguiente autorización y aprobación (gastos de correos, impresos oficiales, copias de llaves, fotocopias, servicios de transporte urgente, entre otros).

b) Los pagos que se pueden realizar con este anticipo de caja fija no podrán ser superiores a 800'00 €.

#### BASE 15.- JUSTIFICACIÓN DE LOS PAGOS.

Para autorizarse un mandamiento se exigirá la factura original sin el recibí, pero garantizada por el sello o firma de la casa suministradora. El recibí lo exigirá el Tesorero en el libramiento y si paga fuera de la localidad con los justificantes del acuse de recibo que envíen las respectivas casas.

16en OINARRIA.- ORDAIN AGIRIAK ORDAINTZERO ERA.

Ordain agiriak zuzkitzaileei ordainduko zaizkie hurrengoan esaten den eran, ordain-agirien zenbatekoaren arabera:

a) 0 eta 2.000'00 € bitarteko ordain agiriak, Ogasun Batzordeak ordain-agiria onartzen den momentuan ordainduko dira.

b) 2.000'01 eta 6.000'00 € bitarteko ordain-agiriak, udal osoko Bilkurak ordain agiria onartzen duen momentuan ordainduko dira.

c) 6.000'01 € baino handiagoak direnean ordain agiriak eta egiaztagiriak, 30 egunetara ordainduko dira Udal Plenoak onartu dituenetik kontatzen hasita.

17en OINARRIA.- INBERTSIOETARAKO KREDITUA.

Obretarako edo lehenengo establezimendu edo kapitalaren zerbitzuetarako gastu aginduak, aurretik Udal Korporazioak dagokion egitasmo teknikoa edo txosten baloratua onartzea eskatzen du.

18en OINARRIA.- KREDITUEN IZAERA ETA LOTURA.

1º) Aurrekontuko kredituak estimazio izaera izango dute, bere ihardueraren garapenari buruzko

BASE 16.- FORMA DE PAGO DE LAS FACTURAS.

Las facturas se pagarán a los proveedores de la siguiente forma, dependiendo del montante de las mismas:

a) Las facturas comprendidas entre 0 y 2.000'00 €, se pagarán a fecha de aprobación de factura en Comisión de Hacienda.

b) Las facturas comprendidas entre 2.000'01 y 6.000'00 €, se pagarán a fecha de aprobación de factura en el Pleno de la Corporación.

c) Las facturas y certificaciones de obra superiores a 6.000'01 € se pagarán a 30 días de la fecha de la aprobación de la misma por el Pleno de la Corporación.

BASE 17.- CRÉDITO PARA INVERSIONES.

La ordenación de gastos para obras o servicios de primer establecimiento o de capital, requerirá que previamente esté aprobado por la Corporación el correspondiente proyecto técnico o memoria valorada.

BASE 18.- CARÁCTER Y VINCULACIÓN DE LOS CRÉDITOS.

1º) Los créditos incluidos en el presupuesto tendrán carácter estimativo, reflejando las

aurrikusmenak isladatuz aurrekontuan.

2º) Gastuen programa talde ezberdinetara lotuta dauden kredituek, gastu egoeran agertzen diren banaketatik aparte, izaera ohargarri soilik baitu, izaera mugatua izango dute hurrengo loturaz

a) Programa funtzionala eta kontzeptua: transferentzi eta gastu arrunt eta kapitalezko dirulaguntzetan, inbertsio errealetan eta finantzario aktiboen aldaketari buruzko gastuetan.

b) Programa funtzionala eta kapitulua, ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuetan, interesak eta pasibo finantzarioen aldaketan.

c) Kapitulua: pertsonal gastuetan.

3º) Kredituen aldaketatik datozen kopuruak, hurrengo hiru egoera hauetan topa daitezke:

a) Kreditu erabilgarriak: printzipios, gastuetarako kreditu guztiak egoera honetan egongo dira.

b) Atxikitako kreditu erabili gabeak: (Kreditu-atxikipenaren

previsiones sobre el desarrollo de su actividad en el ejercicio presupuestario.

2º) Los créditos imputados a los respectivos programas de gastos, con independencia de la desagregación con que aparezcan en el estado de gastos, que tiene un carácter meramente indicativo, tendrán carácter limitativo con sujeción a:

a) Programa Funcional y Concepto, en los gastos relativos a transferencias y subvenciones por gastos corrientes y de capital, inversiones reales y variación de activos financieros.

b) Programa Funcional y Capítulo, en los gastos relativos a compras de bienes corrientes y servicios, intereses y variación de pasivos financieros.

c) Capítulo, en lo relativo a gastos de personal.

3º) Los créditos así consignados como procedentes de las modificaciones presupuestarias podrán encontrarse en cualquiera de las tres situaciones siguientes:

a) Créditos disponibles: en principio, todos los créditos para gastos se encontrarán en esta situación.

b) Créditos retenidos pendientes de utilización: (retención de

bidez, gastu bat edo kreditu-transferentzia bat zenbateko jakin batez baimentzeko lotespen juridikioaren mailan aski saldo dagoelako ziurtapena luzatzen da aurrekontu-partida kontable bati dagokionez, gastu edo transferentzia horretarako zenbateko bereko erreserba bat sortuz)

c) Kreditu baliaezinak: aurrekontuko partida bati jarritako saldoa, osoan edo zati baten gordetzea.

#### 19en OINARRIA.- AURRETIAZKO IKUSKATZE MUGATUA.

Aurrekontuaren araudiak aurreikusitakoaren arabera, Otxandioko Udaleko osoko bilkurak aurretiazko ikuskatzea onartzen eta ezartzen du, artikulua honetan landutako aspektuetara mugatuta, eta ez zaio kalterik egingo aipatutako obligazioen edo gastuen ikuskatze mugatua eragin zuten ekintzen, dokumentuen edo txostenen lagin adierazgarriaren gaineko ondoko ikuskatze osoaren bidezko egiaztapenari. Hau dagokion araudiaren bitartez garatuko delarik.

Orokorrean, gastuak eragiten dituzten eduki ekonomikoko ekintza guztien aurretiazko ikuskatzea eta kontu-hartzailatza jarraian adierazitako oinarrizko

crédito es el acto mediante el cual se expide certificación de existencia de saldo suficiente para la autorización de un gasto o de una transferencia de crédito, por una cuantía determinada, produciéndose por el mismo importe una reserva para dicho gasto o transferencia).

c) Créditos no disponibles: retención de parte o totalidad del saldo de crédito asignado a una partida presupuestaria.

#### BASE 19.- FISCALIZACIÓN PREVIA LIMITADA.

El Pleno del Ayuntamiento de Otxandio, al amparo de lo previsto en la normativa presupuestaria, aprueba y establece la fiscalización previa limitada a aquellos aspectos contemplados en este artículo, sin perjuicio de la necesaria comprobación a través de una Fiscalización plena a posteriori sobre una muestra representativa de los actos, documentos o expedientes que dieron origen a la referida fiscalización limitada en obligaciones o gastos. Que será desarrollada mediante la correspondiente ordenanza.

Con carácter general, la fiscalización e intervención previa de todos los actos de contenido económico generadores de gastos, se limitará a comprobar y verificar



baldintza hauek egiaztatzen mugatuko dira:

a) Lotura mailan aurrekontu-kreditua izatea, eta aurrekontua egokia izatea. Alde horretatik, kreditua egokitzat joko da, udal diruzaintzaren gain dauden hartu beharreko edo sortutako eta ez preskribatutako obligazioak finantzatzen dituenean, horretarako legalki ezarritako baldintzak beteta.

b) Obligazioak edo gastuak erakunde eskudunak sortzea.

c) Gastua finantzatzeko baliabideak eraginkorki eskuragarri egotea.

d) Obligazioak edo gastuak aurrekontuaren egonkortasuna edo finantza-iraunkortasuna arriskuan ez jartzea.

e) Hitzarmenetatik eta diru-laguntzetatik ondorioztatutako obligazioak edo gastuak sortzen dituzten ekintzetan, honako hau egiaztatuko da:

Diru-laguntza izendunak objektua eta onuraduna identifikatzen dituen aurrekontu-saila izatea.

Diru-laguntza izendunaren txostenean, prozedura-aukera

los siguientes requisitos básicos:

a) La existencia de crédito presupuestario a nivel de vinculación, y que el propuesto es el adecuado. A este respecto, se entenderá que el crédito es adecuado cuando financie obligaciones a contraer o nacidas y no prescritas a cargo de la Tesorería municipal, cumpliéndose los requisitos legalmente establecidos para ello.

b) Que las obligaciones o gastos se generan por órgano competente.

c) La efectiva disponibilidad de recursos para la financiación del gasto.

d) Que la obligación o gasto no pone en peligro la estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera.

e) En actos generadores de obligaciones o gastos derivados de convenios y subvenciones, se verificará:

Que la subvención nominativa cuenta con partida presupuestaria que identifique el objeto y el beneficiario.

Que en el expediente de subvención nominativa se

konkurrentzia lehiakorraren salbuespen gisa justifikatzea.

Egin beharreko hitzarmenaren xedea Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateginak araututako kontratuen barnean ez egotea.

Behar bezala zehaztutako hitzarmena edo diru-laguntza diru-laguntzen plan estrategikoan aurreikusita egotea.

Hirugarrenengoaren akreditazioa edo onuradunak zerga-obligazioetan eta gizarte-segurantzaren aurrean egunean dagoenaren egiaztapena.

Onuradunak funtsen helburua justifikatzea, hitzarmenean edo deialdiaren oinarrietan ezarritakoaren arabera, eta diru-laguntzen legeriaren arabera.

20en OINARRIA.- FAKTURAZIO ELEKTRONIKOAREN OBLIGAZIOTIK KANPOKOAK.

Abenduaren 27ko, faktura elektronikoa sustatzekoa eta sektore publikoan fakturen kontularitza-erregistroa sortzeko 25/2013 Legearen 4 artikuluan ezarritakoan babestuz fakturazio elektronikoen obligaziotik kanpo egongo dira, 5.000 euro arteko fakturak eta hornitzaileek Herri-administrazioen kanpoko zerbitzuei

justifique la oportunidad del procedimiento como excepción a la concurrencia competitiva.

